



Urtzen

Telmo Esnalek ura eta kontzientziak dantzan jarri ditu bideo-entseguan

IRENE ELORZA

Pandemiak zinemagintzari bete-betean eragin dio eta aurten hainbat proiektu gelditu edo bertan behera utzi behar izan dira. Aldiz, beste batzuentzat akuilu izan da ohiz kanpoko egoera, eta sorkuntza lan berrietarako lur emankor bihurtu ere. Horien artean dago Telmo Esnal zuzendari zarauztarra. Konfinamendu garaian ahaztutako proiektu bat berreskuratzea erabaki zuen eta honenbestez sortu du *Urtzen*, bere azken filma.

"UR", Pablo Azkue herrikidearen ipuin bat hartu du ardatz Esnalek bideo-entsegu pertsonal bat egiteko. Kontzientzian eta itsasoan sakontzen duen narrazio poetikoa abiapuntu hartu eta elkarrizketak, irudiak eta musika nahastuz eta berrerabiliz, existentziari buruz hausnartzen duen collage bizia osatu du zinemagileak. "Sortu den bezala sortu da proiektua eta hor dago, ez galtzeko", azaldu du Esnalek. Ez zeukan ez ekoizlerik, ez aurrekonturik, ez ezer. "Duela bost hilabete ez zen existitzen, nire buruan zegoen ideia soilaren, ez nekiela zer egin, eta, halako

batean, hemen dago eta Zinemaldian aurkezten da: niretzako luxu bat da. Harrigarria!", gaineratu du.

Zarauztarren artean egina dago filma, aitortzen du Esnalek, jostari. Javi Agirre, Iraia Elias, Xabier 'Euzkitze', Xabier Alberdi eta hainbat lagun izan ditu alboan (edo telematikoki) zuzendariak. "UR" ipuinaren egile Pablo Azkueri grabatutako elkarrizketa eta bere kontsultan errodatutako irudiak gordeta zeuzkan Telmo Esnalek; ondoren gehitu zizkion konfinamendu garaian bere etxean bizitako egunerokotasunaren irudizko leku-kotzak. Proiektua osatzen joateko, uraren inguruan Interneten aurkitutako informazio eta irudi ikusgarriak

"Proiektua hor zegoen, momentua egokia zen, kontatzen zuena interesgarria da eta josten joan nintzen"



MONTSE CASTILLO

gehitzen joan zen Esnal, eta horiei guztiei berak munduan zehar grabatutako irudiak gehitu zitzaizkien. GoPro bat, egonkortzailea duen kamara txiki bat eta lagun batek utzitako drone bat erabili ditu ideia irudi bihurtzeko. Musikari dagokionez, Pascal Gaigne eta Alos Quarteten doinuek girotzen dute filma.

Egilearen aurreko proiektuetan ez bezala, ez dago aurretik espresuki egindako gidoirik. "Hasieran lotsa puntu bat ematen zidan nire burua hor azaltzea, baina gero konturatu nintzen horrela egiten nuela edo ez nuela egiten", dio zuzendariak, "proiektua hor zegoen, momentua egokia zen, kontatzen zuena interesgarria da eta josten joan nintzen". *Urtzen* proiektuari esker, itxialdia berehala pasatu zitzaiola adierazi du Telmo Esnalek.

Ekologiari eta planetari eragiten diegun kalteei buruz hausnarketa planteatzen du filmak. "Niretzat baliagarria izan da egiten ari garenez hausnartzeko", dio Esnalek; "norbaiti laguntzen badio pixka bat kontzientzia hartzen, poztuko nintzateke". Gauzak jaso dituguna baino hobeto utzi behar ditugula konbentzituratzen dago zinemagilea. "Nik uste nuen hau xe zela momentua, baina, bai zera! Okerrera goaz! Itsasoa musukoez betetzen ari gara, plastikoak kontsumitzen berriro, elkar salatzen...", dio asaldatuta.

Bihotzarekin
begiratzen dutenen alde

En apoyo a los que miran
con el corazón

Kutxabankek,
Zinemaldiko Kolaboratzaile Ofizialak,
KUTXABANK - New Directors
Saria babesten du

Kutxabank,
Colaborador Oficial del Festival,
patrocina el Premio
KUTXABANK - New Directors